

3. taula. **Tabakoa uzteko farmakoen segurtasuna** ^(13,23,24)

Farmakoak	NTO	Bupropionaren konprimatuak (Zyntabac®)	Bareniklinaren konprimatuak (Champix®, Byteqi®, Cuitvar®, EFG)	Zitisiniklinaren konprimatuak (Todacitan®, Recigarum®, Zandraqet®)
Ondorio kaltegarriak	– Goragalea eta gorakoak, buruko mina, molestia gastrointestinalak, zorabioak, insomnioa. – Txikleak, konprimatuak eta lainoztagailua: barailako mina, hortzetako molestiak, lehortasuna, ahoko zapore txarra, zotina... – Partxeak: larruazalaren nahasmenduak (pruritoa, rash, urtikaria)	– Oso ohikoak: insomnioa – Ohikoak: hipersentikortasun-erreakzioak (urtikaria), depresioa, asaldura, antsietatea, dardara, kontzentrazioaren alterazioa, buruko mina, zorabioa, dastamenaren alterazioa, ahoko lehortasuna, goragalea eta gorakoak, abdomeneko mina, idorreria, larruazaleko erupzioa, pruritoa, izerditzea eta sukarra.	– Oso ohikoak: goragalea, loaren nahasmenduak (insomnioa eta amets arraroak), nasofaringitisa eta buruko mina – Ohikoak: logura, zorabioak, disgeusia, disnea, eztula, nahasmendu gastrointestinalak, pisua handitzea, apetitua gutxitzea/handitzea, larruazaleko erupzioa, pruritoa, artralgia, mialgia, bizkarreko mina, bularreko mina, nekea, bronkitisa, sinusitisa – Gutxitan: larruazaleko erreakzio larriak (Stevens-Johnson-en sindromea, eritema multiformea eta angioedema).	– Oso ohikoak: aldaketak apetituan (batez ere handitzea), pisua handitzea, zorabioak, suminkortasuna, umore-aldaketak, antsietatea, loaren nahasmenduak, buruko mina, takikardia, hipertentsioa, nahasmendu gastrointestinalak (aho lehorra, beherakoa, goragalea, dastamenaren alterazioa, bihotzere, idorreria, gorakoak, abdomeneko mina), larruazaleko erupzioa, mialgia eta nekea – Ohikoak: bihotz-maiztasun motela, distensio abdominala, aho sumindua, ondoez orokorra, kontzentratzeko zailtasuna.
Kontraindikazioak	– Ez-erretzaileak. – 18 urtetik beherakoak: marka komertzial batzuk kontraindikatu daude (ikusi < 18 urtekoen buruzko atala)	– Egun nahasmendu konbulsiboa izatea edo konbulsio-aurrekariak izatea. – Nerbio-sistema zentralako tumorea. – Alkohola edo bentzodiazepinak hartzeari bat-batean uzteko prozesuan dauden pazienteak. – Anorexia edo bulimia nerbiosoa (egun-goia edo aurretiko diagnostikoa). – Gibeleda zirrozi larria. – Nahasmendu bipolarraren aurrekariak. – MAOren inhibitzaileekiko tratamendu konkomitanteak.		– Angina ezegonkorra. – Miokardio-infartuaren oraintsuko aurrekariak. – Garrantzi klinikoa duten arritmiak. – Istripu zerebroaskularren oraintsuko aurrekariak. – Haurdunaldia eta edoskitzaroa.

Farmakoak	NTO	Bupropionaren konprimatuak (Zyntabac®)	Bareniklinaren konprimatuak (Champix®, Byteqi®, Cuitvar®, EFG)	Zitisiniklinaren konprimatuak (Todacitan®, Recigarum®, Zandraqet®)
Arreta-neurriak	– Diabetes mellitusa, epilepsia eta konbultsioak, kontrolatu gabeko hipertiroidismoa, feokromozitoma, esofagitisa edo urdaileko ultzera, erreakzio alergikoen aurrekariak, ezpainen, aurpegiaren eta eztarriaren inflamazioarekin edo larruazalaren narritadurarekin. – Oraintsuko MIA, angina eze-gonkorra, bihotzeko arritmia larriak, kontrolatu gabeko HTA edo duela gutxiko IZB edo ezegonkortasun hemodinamikoa duten pazienteak	– Bupropiona erabiliz gero, konbultsioak izateko arriskua areagotu egiten da konbultsio-atalasea jaisteko predisposizioa dakarten arrisku-faktoreak dituzten pazienteengan. Beraz, ez da halakorik erabiliko, non eta ez dagoen arrazoi kliniko justifikaturen bat (gehieneko dosia: 150 mg/egun). – Antidepresibo gisa indikatuta dago, eta, beraz, jokabide eta ideia suiziden arrisku handiagoarekin lotu da; hori dela eta, jarraipena egin behar da, eta pazienteari horretaz jakinarazi. – Arretaz jokatu Brugada-ren sindromea duten pazienteekin edo bihotz-gelditzearen edo bat-bateko heriotzaren familia-aurrekariak dituztenekin. – Zehaztu presio arterial basala tratamenduaren hasieran, eta jarraipena egin, batez ere lehendik hipertentsioa duten pazienteen kasuan.	– Krisi epileptikoen aurrekariak edo konbultsio-atalasea jaistea eragin dezaketen bestelako afekzioak. – Nahasmendu psikiatrikoen aurrekariak dituzten edo ez dituzten pazienteek bareniklina erabiltzea ez da lotzen gertaera neuropsikiatriko larriak izateko arrisku handiagoarekin.	– Erne kasu hauetan: kardiopatia iskemikoa, bihotz-gutxiegitasuna, hipertentsioa, feokromozitoma, aterosklerosia eta beste baskulopatia periferiko batzuk, urdaileko ultzera eta ultzera duodenala, errefluxu gastroesofagikoak sortutako gaixotasuna, hipertiroidismoa, diabetesa eta eskizofrenia, giltzurrun-gutxiegitasuna eta gibealeko gutxiegitasuna. – Nahasmendu psikiatrikoen aurrekariak. – Haurdun geratzeko aukera duten emakumeek eraginkortasun oso handiko metodo antikonzeptiboak erabili behar dituzte.

Farmakoak	NTO	Bupropionaren konprimatuak (Zyntabac®)	Bareniklinaren konprimatuak (Champix®, Byteqi®, Cuitvar®, EFG)	Zitisiniklinaren konprimatuak (Todacitan®, Recigarum®, Zandraqet®)
Interakzioak	– Ez da interakzio klinikoki esanguratsurik deskribatu.	– Kontraindikatuta daude: MAOren inhibitzaileak (safinamida, selegilina, errasagilina, moklobemida), pimoza, linezolida, ozanimoda, doxorrubizina – Terapia aldatzeko aukera aintzat hartzea dakarten interakzioak (D mota*): • Tamoxifenoaren eraginkortasuna murriztu dezake. • Zitalopramaren, bortioxetinaren, atomoxetinaren, aripirazolaren, eris-peridonaren eta metoklopramidaren kontzentrazio plasmaticoak handitu ditzake. – Monitorizazioa eskatzen duten interakzioak (C mota*): • Karbamazepinak, fenobarbitalak, fenitoinak eta primidonak bupropionaren kontzentrazioak gutxitzen dituzte. • Tiklopidinak eta klopido-grelak bupropionaren kontzentrazioak handitzen dituzte. • Levodoparekin, amantadinarekin, bromokriptinarekin, erropiniolarekin eta errotigotinarekin, ondorio kaltegarrien gehikuntza handiagoa da. • Haloperidolaren eta klopazinaren kontzentrazio plasmaticoak handitu ditzake. • Kodeinaren eta tramadolaren eraginkortasuna / erantzun terapeutikoa murriztu dezake. • Sindrome serotoninergikoa, SBISeki-ko edo SNBlekiko interakzioagatik.	– Ez da interakzio klinikoki esanguratsurik deskribatu.	– Antituberkulosoak: ez erabili modu konkomitanean. – Aldi berean produktu nikotinadunak erretzeak edo erabiltzeak nikotinaren ondorio kaltegarriak larriagotu ditzake. – Antisorgailu hormonal sistemoak: eraginkortasuna murriztu daiteke (bigarren barrera-metodo bat erabili behar da).

Farmakoak	NTO	Bupropionaren konprimatuak (Zyntabac®)	Bareniklinaren konprimatuak (Champix®, Byteqi®, Cuitvar®, EFG)	Zitisiniklinaren konprimatuak (Todacitan®, Recigarum®, Zandraqet®)
Giltzurrun-gutxiegitasuna (GG)	Arretaz jokatu GG moderatua edo larria duten pazienteekin (IG < 50 ml/min)	Doitu dosia: 150 mg/egun	- Ez da beharrezkoa dosia doitzea, GG arina edo moderatua izanez gero. - GG larria (IG < 30 mg/ml): 1-3 egunak: 0,5 mg/egun; gero, 1 mg egunean behin. - GG terminalean ez da gomendatzen.	Ez da gomendatzen.
Gibeleko gutxiegitasuna (GibG)	Arretaz jokatu GibG moderatua edo larria duten pazienteekin.	- GibG arina-moderatua izanez gero, doitu dosia: 150 mg/egun - Kontraindikatuta dago gibeleko zirrosi larria dagoenean.	Ez dago dosia doitu beharrik.	Ez da gomendatzen.
Haurdunaldia eta edoskitzaroa	- Medikuak gainbegiratuta erabili behar da. - Hobeia izan daiteke aldizkako dosifikazioko produktuak erabiltzea, zeren eta partxeek baino nikotina-dosi txikiagoa ematen baitute eguneko. Partxeak hobeak izan daitezke goragaleak dituzten haurdunentzat. - Edoskitzaroan, bularra eman eta berehala erabili behar da produktua, eta ahalik eta denbora gehien utzi hurrengo hartualdira arte (bi orduko tarteak gomendatzen da).	- Ez da gomendatzen haurdunaldian. - Edoskitzaroan, aztertu beharra dago zer onura dakarren amagandiko edoskitzeak edoskitzailearentzat eta zer onura dakarren tratamenduak amarentzat.	- Ez da gomendatzen haurdunaldian. - Edoskitzaroan, aztertu beharra dago zer onura dakarren amagandiko edoskitzeak edoskitzailearentzat eta zer onura dakarren tratamenduak amarentzat.	Kontraindikatuta dago.

Farmakoak	NTO	Bupropionaren konprimatuak (Zyntabac®)	Bareniklinaren konprimatuak (Champix®, Byteqi®, Cuitvar®, EFG)	Zitisiniklinaren konprimatuak (Todacitan®, Recigarum®, Zandraqet®)
18 urtetik beherakoak	– Ahoko lainoztatzea kontraindikaturik dago. – Partxeak • Nicorette®: kontraindikaturik daude. • Nicotinell® eta Niquitin®: ez zaizkie eman behar 18 urtetik beherakoei, ez badu profesional sanitario batek gomendatzen; 12 asteko iraupena. – Txikleak • Esperientzia urria da. Ez zaizkie eman behar 18 urtetik beherakoei, ez badu profesional sanitario batek gomendatzen. – Konprimatuak • Nicorette®: ez da gomendatzen. • Nicotinell® eta Niquitin®: ez zaizkie eman behar 18 urtetik beherakoei, ez badu profesional sanitario batek gomendatzen; 10 asteko iraupena.	– Ez da gomendatzen.	– Ez da gomendatzen.	– Ez da gomendatzen.
65 urtetik gorakoak	– Ez dago dosia doitu beharrik.	– Doitu dosia: 150 mg/egun	– Ez dago dosia doitu beharrik.	– Ez da gomendatzen (erabilera-esperientzia urria da)

IZB (istripu zerebrobaskularra); HTA (hipertentsio arteriala); MIA (miokardio-infartu akutua); MAOren inhibitzaileak (monoaminoxidasaren inhibitzaileak); SNBI (serotoninaren eta noradrenalinaren birkaptazioaren inhibitzaileak); SBIS (serotoninaren birkaptazioaren inhibitzaile selektiboak)

* Drug Interactions de Uptodate-ren sailkapena ⁽²³⁾

Informazio gehiago nahi izanez gero, medikamentu hauen [fitxa teknikoak](#) ere kontsulta daitezke.